

txoritxoari mokoka

Aingeru begiraleak

Buruhaustea igande gaua maite dutenendako egokia, France2 kateak zabaldutako ikerketa NSAr (National Security Agency) buruz; *Echelon* deitutako aingeru begirale sarea lantzen duen elkarte filantropikoa dugu elkarte hori. Amerikako Estatu Batuek asmatua, bere ahaideen laguntzarekin. Denak eta guztiak entzuten dituzten estatuak dira Estatu Batuak berak, Kanada, Australia, Zeelanda Berria eta Erresuma Batua. 50 urte, teknologia berriak etengabe sortuz eta bereganatuz; inor, ez pertsonarik, ez enpresarik,



EGUNKARIA

Echelon, le pouvoir secret dokumentaleko irudi bat.

Xarlo Etchezaharreta

ez dago sekreturik daukanik. Telefonoak, nazioarteko fax edo telegramak, posta elektronikoak eta beste...: denak dakizkitez!

Eman dituzten lekukotasunen bidartez, National Security Agencyko espioi ohiek egiazko beldurra sartu didate; baina, bereziki, galdera nire buruan sortarazi: jukutria horretan (lekukoen arabera) xahutzen diren 6.000 milioi euroek zenbat sufrikario eta ilunkeria senda litzakete mundu honetan?

PD: 5. bilakatu da France 5.

Ez adiorik, Xanpun!

ETB. Atzo goizean aurkeztu zuten, Miramongo teknologi parkean, 'Teknopolis' saioaren laugarren denboraldia

Informazioaren gizartea begian

EHU, Tekniker eta Eusko Jaurlaritzako Industria eta Hezkuntza sailak izango dira babesleak



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAKZI PRESS

Armando Bilbao, Inaki Irazabalbeitia, Andoni Ortuzar, Josu Jon Imaz, Unai Ugalde eta Alejandro Bengoa, *Teknopolis* saioaren aurkezpenean.

ESANAK

INAKI IRAZABALBEITIA
(Elhuyarrek lehendakaria)

«Saioa denborarekin hobetuz joan da ikuspegi guztietatik»

«Hezkuntza sistemak ezin ditu transmititu aurrerapen teknologikoak»

ANDONI ORTUZAR
(EITBko zuzendari nagusia)

«Albistegietan ahal den ikusle gehienek ulertzeko moduko berriak sartuko dituzte; ekarpen handia da»

JOSU JON IMAZ
(EAEko Industria sailburua)

«Europarekin bateratzeko egiten ari garen aurrerapenak 'Teknopolis'-en jasotzea nahi genuke»

Urtzi Urkizu | **DONOSTIA**

Elhuyarrek laugarren urtez egingo du ETBrako *Teknopolis* zientzia eta teknologiaren gaineko dibulgazio saioa. Atzo egin zuten denboraldi honen aurkezpena Donostian, Miramongo teknologi parkeko auditoriumean.

Inaki Irazabalbeitia Elhuyarrek lehendakariak egin zituen aurkezpen lanak. «Duela lau urte erronka handitzat hartu genuen saio hau Elhuyarren. Abentura polita bihurtu da, eta denborarekin hobetuz joan da, ikuspegi guztietatik», esan zuen Irazabalbeitiak. «Hedabideak oso garrantzitsuak dira kultura eta balioak transmititzeko. Eta

hezkuntza sistemak egun ez du ahalbiderik aurrerakuntza teknologikoak transmititzeko. Gure helburua zientzia eta teknologiaren garapena euskal herritarrengana zabaltzea litzateke. Nazioartean eta Euskal Herrian egiten den lana azaldu nahi dugu», azaldu zuen Elhuyarrek arduradunak.

Aurrerantzean ere saioko aurkezlea Pili Kaltzada izango den arren, lehenengo saioan ezin izango du lan hori bete, osasun arazoak baititu. Haren ordezkari Nerea Pikabea arituko da. Saioko zuzendari Alfontso Mujikak jarraituko du.

EITBko zuzendari nagusi Andoni Ortuzarrek aurkezpenean hitz gozoak izan zituen *Tekno-*

EMANALDIA

Igandero emango dute 'Teknopolis': ETB2 katean eguerdiko 12:15ean, eta ETB1ean 20:00etan

polis-entzat. «Ziur naiz helburuak beteko direla, bereziki abentura kide berriei esker». Aurten saioaren babesleak Eusko Jaurlaritzako Industria eta Hezkuntza sailak eta Euskal Herriko Unibertsitatea dira. Gainera, Tekniker zentro teknologikoak zuzenean laguntzen dio Elhuyarrek lan taldeari. Era berean, Ortuzarrek nabar-

mendu zuen zientzia eta teknologiari ordutegi onean zabaltzen dietela leihoa (igandean, 12:15ean eta 20:00etan). «ETBko albistegietan, Elhuyarrek ikusleria handiak ulertzeko moduko albisteak sartuko dituzte. Eta hori ekarpen garrantzitsua da», gaineratu zuen EITBko buruak.

Atal berri bat izango du saioak

Denboraldi honetako ezaugarri aipagarriena, eduki aldetik, informazioaren gizartean jarriko duten arreta da. Programaren atal berri batek informazioaren eta telekomunikazioaren azken teknologien aukerak eta errealitateak erakutsiko ditu.

Saioaren babesleetako bat

Eusko Jaurlaritzako Industria Saila izango da, eta Josu Jon Imaz sailburuak euren apustuari zergatia azaldu zuen Miramongo: «Saioa balio bat da berez. Juan Jose Ibarretzek Europarekin bateratzea lortu behar genuela esan zuen, eta helburu hori lortzeko hiru ardatz daude. Informazio munda berriaren garapen eta ezagutza, zientzia eta teknologia sistema eredu bihurtzea, eta kalitatearen kontzeptua zabaltzea. Horiek ez dira kontzeptu teorikoak, gure errealitatearen parte bat baizik. Ikerkuntza zientifikoa egiten diren aurrerapenak eta teknologian egiten diren inbertsioak *Teknopolis* saioan agertzea nahi genuke».